

LABek epaitegira joko du Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako greba amaierako akordioan jasotzen den soldata igoera patronalek ordain dezaten

Greba amaierako akordioan indarrean dauden neurriak eta hurrengo ikasturtean martxan jarri behar direnak dagokien epeetan ez badituzte aplikatzen, bide juridiko eta ekintza sindikala bultzatuko du sindikatuak.

Greben osteko mahai negoziatzaileak ez dira oso eraginkorrak izaten ari, Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek duten jarrerengatik. Behin eta berriro edozein aitzakia baliatuta, ez dute adostutakoa betetzen eta gainera, akordioa betetzeko epeak luzatzen saiatzen ari dira. LABen ustez, negoziazioetan jokabide hori ez da onargarria.

Maiatzaren bukaerako negoziazio mahaietan, sindikatuarekin adostasunera heldu gabe, patronalek aldebakarrez erabaki zuten adostutako lanaldi murrizketak ezartzea eta Lanbide Heziketako jardunaldi irregularren konpentsazioa aplikatzea ikasturte honetan. Alta, ez zuten adostu nahi izan zein baldintzetan aplikatu beharko ziren aipatutako murrizketak horiek. LAB sindikatuak eskatu zuen adostutako lanaldi murrizketak egunka disfrutatzea, ikasturtea bukatzearekin edo berau hasteararekin batera.

Ordainsariei dagokienez, berriz, LABek mahai negoziatzaileetan behin eta berriz nominak eguneratzeko data bat izatea eskatu du. Aldiz, Patronalek ez dute zehaztu nominak noiz eguneratuko dituzten, Jaurlaritzaren finantzazioaren zain daudela argudiatuz. LAB sindikatuak jakitun da gobernu berriaren osakerak baldintzatzen duela Jaurlaritzaren finantzazioa; alta, gobernu berria osatzearekin batera data finkatuta egon behar dela adierazten du eta otsailaren 5ean lortutako greba bukaerako akordioa bete behar dela.

Argi geratu da greba amaierako soldata igoera finantzazio publikoari guztiz lotua dagoela eta ekiparazioa langileen borrokaren ondorioz lortu zitekeen neurria zela, beste sindikatuak hori ezkutatu eta baztertu zuten arren.

Aurreko guztia esanda, otsailaren 5eko akordioa betetzeko Patronalek duten ardura ezin da alde batera utzi. Hori dela eta, LAB sindikatuak epaitegira joko du greba amaierako akordioan jasotzen den soldata igoera ordain dezaten eta gatazka kolektibo bat aurkeztuko du EAEko Auzitegi Nagusian.

Hurrengo mahai negoziatzailea ekainaren 19an izango da. Kristau Eskolak eta AICE-IZEAk hitzarmen osoaren idatzizko proposamena aurkeztu beharko dute, artikuluz-artikulu. Bilera horretarako, LABek espero du adostutako eduki guztiak jasota egotea, horren konpromisoa hartu baitzuten aurreko negoziazio batzarrean.

Hau gertatuko ez balitz, LABek bere ordezkari eta afiliatuekin egoeraren azterketa egingo du eta akordioa puntuz puntu betearazteko neurriak hartuko ditu, hala nola juridikoak eta ekintza sindikalekoak.

Euskal Herrian, 2024ko ekainaren 12an